

2/2021 INSTRUKZIOA, APIRILAREN 27KOA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, 2020-2021 IKASTURTEKO UDAKO EUSKARA IKASTAROETARAKO DEIALDIA ARAUTZEKO PROZEDURA EZARTZEN DUENA

Instrukzio honen bidez 2020-2021 ikasturteari dagokion 2021eko udan euskara ikasteko eskaerak tramitatzeko eta langileak aukeratzeko prozedura ezartzen da. Hona hemen xede horretarako ematen diren

JARRAIBIDEAK**1.- NORK ESKA DEZAKE UDAKO IKASTAROA?**

Ikastaro hauek 2021eko udan euskara ikasi nahi duten Osakidetzako langileei eskaintzen zaie.

Udako ikastaro bat eskatu ahal izateko, aldezturik IVAPeko deialdien bidez ikastaroren bat egin behar du interesdunak eta, beraz, ikas-prozesua hasia.

Deialdian parte har dezakete Osakidetzako langileek, lan-harremana edozein izanda ere, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:

- Zerbitzu aktiboan, senideak zaintzeko eszedentzian edo zerbitzu berezietan egotea 2020ko martxoaren 13tik 2021eko maiatzaren 13ra (udako ikastaroetan parte hartzeko izen-emate eguna bukatu arte).

- Aldi baterako kontratatuen eta ordezkoen kasuan, epe horretan guztira zazpi hilabetetik gora lan egin behar izan dute Osakidetzan.

2.- UDAKO EUSKARA IKASTAROEN ESKAINTZA.

Deialdi honetan aurrez aurreko eta autoikaskuntza ikastaroak eskainiko dira.

Gehienez ere, hiru ikastaro eskatu ahal izango dira. Autoikaskuntza ikastaroa aukeratzeko bada, ikastaro bakarra egin ahal izango da.

Ikastaro guztiak lanorduetatik kanpokoak izango dira; beraz, langileak oporraldietan joango dira eskolera.

Udako ikastaro bat eskatu ahal izateko, aldezturik IVAPeko deialdien bidez ikastaroren bat egin behar du interesdunak eta, beraz, ikas-prozesua hasia.

Udako ikastaroen deialdi honetan eskaintzen den hizkuntza-prestakuntza IVAPek finantzatzeko du horretarako duen aurrekontuaren bidez. Aurrekontua nahikoa ez balitz IVAPek Ogasun eta Herri

**EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCOOSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Administrazio sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren 3. artikuluan ezarritako irizpideak jarraituko ditu.

Ordu-kreditua agortuta izateagatik IVApek finantzatu ez duen langileen hizkuntza-prestakuntza Osakidetza finantzatu du horretarako duen aurrekontuaren bidez, betiere Osakidetza Giza Baliabideen zuzendariaren martxoaren 12ko 2/2018 Jarraibideek ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

3.- IKASTAROEN EZAUGARRIAK.

Udako ikastaroek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- 1) Matrikula-orria soilik erabili ahalko da bertan zehaztuta dagoen ikastaroa egiteko.
- 2) Ikastaroak HABEk araututako ikastaro modulua izan behar du.
- 3) Euskaltegi publikoek edo pribatu homologatuek eman behar dituzte edo autoikaskuntza zentro homologatuek eman behar dituzte.
- 4) Aurrez aurreko ikastaroek gutxienez 80 ordukoak izan behar dute.
- 5) Autoikaskuntza bidezko ikastaroek gutxienez 70 ordukoak izan behar dute.
- 6) EZ da 4HE prestatzeko ikastarorik eskaintzen.

***Aurrez aurreko ikastaroak:** aurrez aurrekoak, aurrez aurreko telematikoak edota eskola batzuk aurrez aurre eta beste batzuk telematikoak. Baliabidea edozein dela ere, irakasleak eta ikasleak ordutegi zehatz bat bete behar dute elkarerraginean, hau da, eskola 08:00etatik 10:00etara baldin bada, bi ordu horietan elkarerraginean egongo dira, aurrez aurre zein bideokonferentziaz. Ikasle batzuk ikasgelan egotea eta beste batzuk urrutitik jarraitzea ere gerta liteke.

***Autoikaskuntza ikastaroak:** Euskaltegiek zein autoikaskuntza zentroek berariaz lineako ikastaroak emateko dituzten programen bidez ikastea. Nahiz eta tarteka tutoretza edo mintza saioak izan, oro har, lan gehiena bakoitzak bere kasa antolatzen du, programa horiek bakarka eta zehaztutako ordutegirik gabe erabilia.

Ikastaroa irailean egin nahi izanez gero, kontuan izan beharko da 2021-2022 ikasturteko ikastaroak noiz hasiko diren, iraileko ikastaroaren amaiera eta ikasturte berriaren hasiera nahas ez daitezen.

4.- ESKABIDEEN EPEAK, TRAMITAZIOA ETA JAKINARAZPENA.

Langile bakoitzak, gehienez ere, hiru ikastaro egin ahal izango ditu eta ikastaro bakoitzeko eskaera bat egin beharko du.

Deialdi honetan parte hartu nahi duten pertsonak eskaera telematikoa egin beharko dute, Osakidetza intranet korporatiboaren bidez.

- www.osakidetza.eus (Profesionalak > Euskara > Euskarazko prestakuntza > Euskalduntze ikastaroak > Udako ikastaroak > Eskaerak)

- www.osakidetza.euskadi.eus (Online zerbitzuak > Profesionalentzako zerbitzuak > Intranet korporatiboa)

Salbuespenez, eskaera telematikoa egitea ezinezko den kasuetarako, interesdunek zerbitzu-erakundeetako langileen zuzendaritzetan aurkeztu ahal izango da izena emateko eskaera. Inprimakia intranet korporatiboan izango da interesdunen eskura.

Espezialitatea egiten ari diren egoiliarrek eskaera egiteko orduan zein zentrotan ari diren adierazi beharko dute, "oharrak" izeneko atalean.

4.1.- Eskaerak egiteko epea.

Udako ikastaroetarako eskaera egiteko epea: **2021eko apirilaren 29tik maiatzaren 13ra bitartean**, biak barne. Data horretatik aurrera zerbitzu-erakundeek ez dute eskaerarik onartuko.

Zerbitzu-erakundetako langileen zuzendaritzek eskaerak Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritzari helarazteko azken eguna: **2021eko maiatzaren 25a**. Epe hori igarota, ez da eskaerarik ez aldaketarik onartuko.

Giza Baliabideen Zuzendaritzak IVAPi baimendutako eskaeren berri emateko azken eguna **2021eko ekainaren 2a** izango da. Epe hori igarota, ez da eskaerarik ez aldaketarik onartuko.

4.2.- Eskaerak tramitatzea. Baimendutako eta baztertutako eskaeren zerrendak jakinaraztea.

Zerbitzu-erakundeek paperean aurkeztutako eskaerak GIZABIDE-EUSKARA prestakuntza moduluan grabatu eta tratatu beharko dituzte. Modu telematikoz egindako eskaerei dagokienez, tratatu baino ez dira egin behar. Zerbitzu-erakundeek onartutako eta ukatutako eskaeren izen-zerrenda bidali beharko dute Giza Baliabideen Zuzendaritzara, paperean aurkeztutako eskaerekin batera.

Aurkeztutako eskaera guztiak aztertuta, Osakidetzak baimendutako eskaeren berri emango dio IVAPi, honek eskaerak aztertu eta, hala dagokionean, onar ditzan. Jasotako eskaerak aztertu ondoren, IVAPek ezetsitako eskabideen zerrenda jakinaraziko dio Osakidetzari, baztertzeko arrazioa adierazita.

IVAPetik ezetsitako eskaeren berri jaso ondoren, Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariak, ebazpen bidez, baimendu eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda onartuko du. Baztertutakoen kasuan, bazter uztearen arrazioa adieraziko da. Adierazitako ebazpena Osakidetzaren intranet korporatiboan argitaratuko da. Era berean, zerbitzu-erakundeek ebazpenaren berri emango dute, erakundean zabalkunde handiena duten bitartekoen bidez.

Behin-behineko zerrenda Osakidetzaren intranet korporatiboan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, interesatuek 10 eguneko epea izango dute erreklamazioak Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariari aurkezteko.

Erreklamazioak Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetako erregistroan aurkeztu ahal izango dira eta, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan jasotako edozein eratan.

Osakidetzak, bere aldetik, aztertuko du IVApek ordu-kreditua agortuta izateagatik bazter utzitako eskaerak, Giza Baliabideen zuzendariaren 2/2018 Jarraibideek ezarritako betekizunak betetzen dituzten, euskara ikasten jarraitzeko ohiz kanpoko laguntza jasotzeko.

Dagokion epean aurkeztutako erreklamazioak eta IVApek ordu-kreditua agortuta izateagatik bazter utzitako eskaerak aztertuta, Osakidetza Giza Baliabideen zuzendariaren ebazpen bidez ebatziko dira. Ebazpen horrek baimendu eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda jasoko du; baztertutakoen kasuan, bazter uztearen arrazoia adieraziko da. Behin betiko zerrendan zehaztuko da, halaber, prestakuntza IVApek edo Osakidetza finantzatuko duen. Aipatutako ebazpena Osakidetza inernet korporatiboan argitaratuko da. Era berean, zerbitzu-erakundeek ebazpenaren berri emango dute, erakundean zabalkunde handiena duten bitartekoen bidez.

Ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza zuzendari nagusiar, hilabete epean, ebazpena Osakidetza inernet korporatiboan jendaurrean jartzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

5.- UDAKO IKASTAROEN ONARPEN-ARAUDIA ETA ANTOLAMENDUA.

- Udaiko ikastaro bat eskatu ahal izateko, aldezturik IVApeko deialdien bidez ikastaroren bat egin behar du interesdunak eta, beraz, ikas-prozesua hasia.
- 2019-2020 ikasturteko udaiko ikastaroak arautu zituen maiatzaren 28ko 2/2020 Instrukzioak ezartzen zuena betetzeko, baztertuak izango dira 2020ko udaiko deialdian matrikula orria jaso ez edo itzuli ez zuten eskatzaileen eskaerak.
- Baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak ukatu egingo ditu IVApek, eta Osakidetza Giza Baliabideen Zuzendaritzari ukapenaren berri emango dio, honek zerbitzu-erakundeetako zuzendaritzari jakinarazteko.
- Baldintzak betetzen dituzten eskaeren kasuan, aldez, IVApek interesdunentzako matrikula orriak bidaliko ditu Osakidetza Giza Baliabideen Zuzendaritzara, honek, zerbitzu-erakunde langileen zuzendaritzetara bidaliko ditu, interesdunei banatzeko. Interesdunak eurak matrikulatuko dira aukeratutako ikastaroan, betiere IVApek onartutako moduluan. Horretarako, matrikula-orria aurkeztu behar dute euskaltegia edo autoikaskuntza zentroan.
- Langileek konpromisoa hartzen dute dagokion matrikula orria jasotzeko eta erabiltzen ez badute itzultzeko. Hurrengo deialdian ezetsi egingo dira 2021eko udaiko matrikula orria jaso ez edo, erabili ezean, itzuli ez duten langileen eskaerak.
- Langileak ikastaroa ez egitea erabakitzen badu, bere zerbitzu-erakundeko langileen zuzendaritzari jakinarazi beharko dio berehala, betiere 2021eko irailaren 24a baino lehen. Horretarako, "Ikastaroari uko egiteko inprimakia" izeneko agiria behar bezala bete eta bere zerbitzu-erakundeko pertsonaleko zuzendaritzari aurkeztu beharko du.

- Era berean, ikastaroa hasi eta langileak ikastaroa uzten badu, eskola uztea jakinarazi beharko dio bere pertsonaleko zuzendaritzari ahalik eta arinen. Horretarako, "Eskola-uztea jakinarazteko inprimakia" izeneko agiria behar bezala bete eta langileen zuzendaritzan erregistratu beharko du.
- Uko egiteko eta eskola uztea jakinarazteko inprimakiak zerbitzu-erakundeetako langileen zuzendaritzetan egongo dira eskura, bai eta Osakidetzaren intranet korporatiboan ere:
 - www.osakidetza.eus (Profesionalak > Euskara > Euskarazko prestakuntza > Euskalduntze ikastaroak > Udako ikastaroak > Deialdiari buruzko agiriak > "Ikastaroari uko egiteko inprimakia" eta "Eskola uztea jakinarazteko inprimakia")

6.- MATRIKULAREN ORDAINKETA.

IVAPek matrikula-orria ordainduko du, betiere ikastaroak instrukzio honen hirugarren oinarrian zehaztutako baldintzak betetzen baditu.

Baldintza guztiak betetzen direla egiaztatu ondoren, IVAPek langilearen ikastaroen matrikula onartu eta ordaindu egingo du. Barnetegia aukeratuz gero, eskolak, ostatua eta mantenua ere ordainduko ditu; alabaina, ez du bestelako gasturik ordainduko, hala nola, joan-etorriak eta materialak.

Ordu-kreditua agortuta izateagatik IVAPek ordainduko ez dituen eskaerak Osakidetzak finantzatzeko ditu horretarako duen aurrekontuaren bidez, betiere Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren martxoaren 12ko 2/2018 Jarraibideek ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

7.- JASO EZ DIREN MATRIKULA-ORRIAK, IKASTAROEI UKOAK ETA ESKOLA-UZTEAK TRAMITATZEKO ETA JAKINARAZTEKO PROZEDURA.

7.1.- Langileek jaso ez dituzten matrikula-orriak

Zerbitzu-erakundeek, beranduen ere, urriaren 8rako bidaliko beharko dituzte Giza Baliabideen Zuzendaritzara langileek jaso ez dituzten matrikula orriak. Giza Baliabideen Zuzendaritzak ez du onartuko data horretatik aurrera jasotako matrikula-orriak.

7.2.- Ikastaroari uko egitea.

Zerbitzu-erakundeetako langileen zuzendaritzek langileek aurkeztutako uko-jakinazpenak eta erabili ez diren matrikula orriak langileek aurkeztu ahala bidaliko dituzte Giza Baliabideen Zuzendaritzaren Euskara Zerbitzu Korporatiboa. Ukoak eta matrikula orriak ukoen laburpen-zerrenda batekin batera bidali beharko dira. Agiriak bidaltzeko azken eguna urriaren 8a izango da.

7.3.- Eskola uzteak.

a) Eskola-uzteak erregistratzea.

Zerbitzu-erakundeek langileak uko-jakinarazpena aurkeztu duen egun berean erregistratuko du erakundearen erregistroan inprimakia.

IVAPek diruz lagundutako ikastaroak direnean oso garrantzitsua izango da inprimakia zerbitzu-erakundearen langileen zuzendaritzan lehenbailehen erregistratzea. Izan ere, eskola-uztearen data inprimaki langilearen zerbitzu-erakundearen erregistroan sartu den eguna izango da eta IVAPek egun hori hartuko du kontuan ordu-kredituaren kontaketa eteteko.

Osakidetzak diruz lagundutako ikastaroa egiteko baimena duten langileen uko-jakinarazpenak ere erregistratuko dira.

b) Eskola-uzteak bidaltzea eta Osakidetza Euskara Zerbitzu Korporatiboari jakinaraztea.

- IVAPek diruz lagundutako ikastaroen kasuan, zerbitzu-erakundeetako langileen zuzendaritzek eskola-uzteei dagokien dokumentazioa bidaliko dute zuzenean IVAPera egun berean, IVAPek dagokionari horren berri eman diezaion. Halaber, Osakidetza Euskara Zerbitzu Korporatiboari emango diote eskola uztearen berri.
- Osakidetza ordaindutako ikastaroen kasuan, zerbitzu-erakundeetako langileen zuzendaritzek eskola uzteei dagokien dokumentazioa Osakidetza Euskara Zerbitzu Korporatibora bidaliko dute.

8.- ORDU-KREDITUA UDAKO IKASTAROETAN.

Deialdi honetara biltzen diren eskariek ordu-kredituaren sistema izango dute ezarrita, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Aginduari jarraiki.

Agindu horren seigarren artikularen arabera, euskara ikastaroa hasi ahal izateko, beharrezkoa izango da ikasleek ikasturtearen hasieran ordu-kredituan aldeko saldoa izatea.

Gauzak horrela, IVAPek ordu-kredituaren kontrola modu honetan aplikatuko du udako ikastaroetan:

- 2020-2021 ikasturtea 2020ko urrian hasi zuten ikasleei ikasturtea hasi aurretik aplikatu zitzaizen ordu-kredituaren kontrola; beraz, udako deialdian ez zaie berririo aplikatuko. Ondorioz, ikasturtea urrian hasi zuten ikasleek udako deialdian parte hartu ahal izango dute nahiz eta udako eskaera egiten dutenean ordu-kreditua negatiboa izan. Edozelan ere, udako ikastaroetan emandako orduak ordu-kreditutik kenduko dira, ikasturtean zehar emandako gainerakoak bezalaxe.

- 2020-2021 ikasturtea 2021eko otsailean hasi zuten ikasleei goiko paragrafoan azaldutako printzipioak aplikatuko zaizkie.

- Azkenik, 2020-2021 ikasturtea udan hasiko duten ikasleei eskaera egin orduko aplikatuko zaie ordu-kredituaren kontrola, eta saldo negatiboa dutenak ezin izango dira eskolan hasi. Hau da, ikasle horiek udako ikastaroa egin ahal izateko, aldeko saldoa izan beharko dute; bestela, IVApek bazter utziko du eskaera. Aurreko kasuetan bezala, udako ikastaroetan emandako orduak ordu-kreditutik kenduko zaizkie.

8.1.- Ordu-kreditua agortuta duten langileek egindako ikastaroak finantzatzea.

Deialdi honetan ordu-kredituan aldeko saldorik izan ez eta IVApek finantzatuko ez dituen langileen ikastaroak Osakidetzak finantzatuko ditu, horretarako duen aurrekontuaren bidez, betiere langileak Giza Baliabideen Zuzendaritzaren martxoaren 12ko 2/2018 Jarraibideetan ezarritako baldintzak betetzen baditu.

9.- DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 13. artikulua betez, jakinarazten da deialdi honen eremuan euskara-ikastaroak kudeatzeko datu pertsonalen tratamendua, alde batetik, Osakidetzaaren ardurapean egingo dela, eta, beste alde batetik, IVAPen ardurapean.

Interesdunari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak Osakidetza tratatuko dituela eta GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA INTEGRATUA izeneko tratamendu-jardueran sartuko direla. Tratamendu horren helburua da Osakidetza langileak kudeatzea, interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak erabiliz egindako misio bat betetzeko. Datuak hirugarren erakundeei jakinaraz dakizkieke. Interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta haien tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko ere.

Datuen babesari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara:

<https://www.osakidetza.euskadi.eus/datuenbabesa>

Halaber, interesdunari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak IVApek tratatuko dituela eta EAEKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEEN EUSKALDUNTZEA izeneko tratamendu-jardueran sartuko direla. Tratamendu horren helburua da EAEko administrazio publikoetako langileen hizkuntza-gaikuntzako ikastaroak kudeatzea eta ebaluatzea, eta, hala badagokio, programatzea eta bertaratzea gestionatzea, bai eta hizkuntza-gaikuntzagatik esleitutako ordu-kreditua kudeatzea ere. Hori guztia, interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako eginkizun baten arabera. Datuak hirugarren erakundeei jakinaraz dakizkieke. Interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta haien tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko ere.

Datuen babesari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara:
https://www.euskadi.eus/tratamendu-jardueren-erregistroa-tje/web01-aprat/eu/eu/contenidos/informacion/rat/eu_def/adjuntos/0215_eu.html

Vitoria-Gasteiz, 2021eko apirilaren 27a


 **Osakidetza**
Maria Pilar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Iz.: Maria Pilar Uriarte Brizuela
OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA